

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak 2,8 milioi euro bideratuko ditu nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreko ikerketa eta aholkularitzarako

*Zerbitzu horiek INTIA sozietate publikoaren bidez eskainiko dira, 11.000 profesional baino gehiagoko kooperatiba eta ustiategientzat 2014an.*

Miércoles, 16 de abril de 2014

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, INTIA (Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutua) sozietate publikoari 2,8 milioi euroko laguntza emateko akordioa onetsi du. Horren bidez, 2014an, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen-tekniken ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-lanak egin eta ekoizpenean, elikagaien segurtasunean, ingurumenean eta animalien ongizatean aholkularitza teknikoak emango du.

Aurten, eta onetsitakoa laguntzaz baliatuta, 49 kooperatibak eta abeltzaintzako 1.267 ustiategik jasoko dute laguntza teknikoa. Guztira 11.000 pertsona baino gehiago hartzen dituzte kooperatiba eta ustiategi horiek. Horrez gain, 161 esperimendazio-saiakuntza ere egingo dira, beste jarduera batzuek gain.

### Ikerketa

Ikerketa-proiektuen helburua nekazari eta abeltzainei sor dakizkiekeen arazoei irtenbideak bilatzea eta ekoizpen-sistemak hobetzea da.

Horretarako, INTIAk esperimendazio-proiektuak gauzatzen ditu, esperimenduetarako dituen tokietan zein ustiategi pribatuetan. Ondoren, aholkularitza teknikorako taldearen bidez, lortutako ezagutza sektorerara eramaten du.

Zehazki, 2014an, 161 saiakuntza egiteko asmoa du. Horietatik 102 labore moten ekoizpenarekin erlacionatutako programei dagozkie: estentsiboak, frutenak, baratzeak, negutegietakoak, olibondoak eta mahastiak. Beste 59 saiakuntza honako arlo hauetan sistema iraunkorrak lortzeko teknikei loturikoak dira: ura eta ureztatzea, mekanizazioa eta lur-lantzea, teknologia berriak, laboreen babes integratua, ekoizpen-sistemak, lurzorua eta ongarriak, eta hondakinen kudeaketa.

Gainera, INTIAk Espainiako eta nazioarteko erakundeek finantzaturako 20 I+G proiektutan parte hartuko du, nekazaritzako ikerketako beste erakunde batzuekin edo Landa Garapenean, Ingurumenean eta Toki Administrazioaren Departamentuarekin berarekin elkarlanean. Proiektu guztietatik 10ek dagoeneko badute kanpoko finantzazioa, eta laguntzak eskatu dira gainerako 10entzat (horietatik bost Europako deialdiak dira).

## Aholkularitza tekniko

Laguntzaren barruan sartzen den INTIAren jardueretako bat ekoizpenaren, elikagaien segurtasunaren, ingurumenaren eta animalien ongizatearen inguruko aholkularitza tekniko eskaintzea da. Kasu horretan, helburuak ustiatzearen errentagarritasuna eta iraunkortasuna hobetzea, teknologia berriak ezartzea eta, azken finean, nekazarien eta abeltzainen bizi-kalitatea hobetzea dira.

Kontsultatzen diren gairik ohikoenak nekazaritzako ekoizpena, landare-materiala, laboreen babesa, urreztatze-teknikak, lantze-teknikak, laborantza, mekanizazioa, biosegurtasuna, animalien osasuna, animalien ongizatea, animalien elikadura, elikagaien segurtasuna, higiena, trazabilitatea, kudeaketa tekniko eta ekonomikoa, produktuen kalitatea, iraunkortasuna, baldintzapekotasuna eta Europar Batasunaren Nekazaritza Politika dira.

Nekazaritzaren sektoreari dagokionez, besteak beste, 2014an 49 kooperatibari emango zaie aholkularitza (guztira 10.000 nekazari bazkide dira), baita aire zabaleko ustiatzeak dituzten 262 nekazariri eta laboreak negutegietan hazten dituzten 130 nekazariri ere.

Abeltzaintzan, aurreikusi denaren arabera, abeltzaintzako 1.267 ustiatzari emango zaie zerbitzua. Horietatik 478 ardi-aziendakoak dira (298 haragitarako eta 180 esnetarako), 255 zaldi-aziendakoak, 250 haragitarako behi-aziendakoak, 155 esnetarako behi-aziendakoak, 80 txerri-aziendakoak, 25 ganadu suharrekoak eta 24 untxienak. Gainera, 195 ustiatzari esnearen kalitateari buruzko aholkularitza jasoko dute, eta 24k pentsuaren ekoizpenari buruzkoa.

Bestalde, INTIA ganaduaren bertako arrazak babesteko lanean ari da, galzorian dauden bi arrazagune kudeatuta, Nafarroako zaldikoa (Sabaiza) eta betizu arrazak (Sastoia). Arlo horretan Pirinioetako arrazaren hedapena ere bultzatzen du abeltzainen elkarrekin elkarlanean zekorrek hazita, eta ardiaren bertako arrazen (latxa eta nafar ardia) genetika hobetzeko programa garatzen du.

Amaitzeko, sozietate publikoaren aholkularitza-zerbitzuen artean sektoreko profesionalentzako kontabilitatearen eta zergen, eta kudeaketa tekniko eta ekonomikoaren inguruko laguntza tekniko ere badago.